

# hondo-hondotik

Koldo Aldai

(Kazetaria)

## Esperantzaren langilea

**L**aster estreinatuko duten herria irrikatu eta haren alde lan egin zutenei eskerrak emateko baino ez du begiratzen atzerantz. Pobrezia eta jazarpena jasan zituen, eta, hala ere, ezertan ere ez dio amore ematen erresuminari. Marx irakurri zuen, ohoratu eta ahaztu behar zela jakiteko adina irakurri ere. Kartzelan izan zen, eta denbora hura nahikoa izan zuen askatasunaren balioa ikasteko. Behin eta berrizko gaitzailea izan zen, eta, ondorioz, merezita lortutako garaipenaz gozatzen da, eta, orain, beragan jarritako konfiantza zentzuz eta eraginkortasunez administratzen jakingo du. Nekaezina, saiatua, setatsua, Luis Inácio Lula da Silva jadanik Brasilek

izango duen hurrengo presidentea da. Haren aldaketa eta itxaropen mezuak oso harri ona izan du Brasilgo hautesleeren artean. Haren integrazio eta hitzartze borondatea iraultzailea da Latinoamerikako ezkerrearen esparruan, hala nola ezohikoa politikan oro har. Langile-presidenteak bere bizitza osoan aurre egin behar izan dien erronka handiak ez dira ezer orain gobernu buruzagitzatik hartzen duen desafio ikaragarriaren aldean, herriak, etorkizun handikoa izanik ere, ustelkeriaren eta desberdintasun handien zama ikaragarri handia jasan behar duelako. Zor publikoa 600.000 milioi realekoa da, eta kanpo zorra 30.000 milioi dolarrekoa, eta Cardosoren opari horiek ez dute batere errazten bidea.

Lulak ezkerrearen gerra-aizkora lurperatu du, eta horrek ateak eta aukerak zabaltzen dizkio. Zuzen-zuzenean jasan du sistema guztiz bidegabearen iraina, diktaduraren eraso, hala nola garai zailtako sindikalismoaren nahigabeak, baina ez dio heltzen iraganari, eta fede guztia jartzen du etorkizunean.

Badago Sao Pauloko metalurgiako langile ohia Ameriketako Mandela dela dioenik. Beharbada goizegi da laudoriozko hitz horiek esateko, baina zalantzarik ez dago Brasilgo hurrengo presidentea egoera onean dagoela hauteskondeetako gauean iragarri zuten «aldi berria» hasteko. Ustelkeriari aurre egiteko eta pobrezia premiazko erantzuna emateko jadanik iragarritako planek bermatzen dute aldi berri hori, baina ezinbesteko neurri horiez gain, herria guztien

artearen eraikitze erabaki irmoa da Luiz Inácio Lula da Silvaren aldi berriaren ezauzgarria. Langileen Alderdiko buruzagi eztaba daezinaren aldi berria merkatua eta gizarte justizia da, hala nola ezinbesteko lehiakortasuna, baina, aldi berean, egunero hiru otordu brasildar guztientzat eta inflazioaren kontrola ere bai, eta, batez ere, bertako herritarren zati handi bat murgilduta dagoen miseria gaintzea. Egia esan, Lularen aldi berria orain dela hainbat hamarkada maitzen hasi zen: urte luzeetan lan gogorra egin zuten herri-klaseak autoantolatze, sektore behar-tsuenek ekimena izan zezaten, eta kontzientzia hartu, inoiz ere dirigismo-rik eta egitura piramidalik

ezarri gabe. Eta klase horiek heldu egin ziren, botere zatiak bereganatu egin zituzten udaletan eta estatuetan, harik eta, egun batean, politika handian agintea hartzeko ahalmenaz jabetu eta beren buruzagi karismatikoa nazioaren aulkian jarri zuten arte.

Hainbat hamarkadako borrokan zaildutako sindikalista akordioak prestatzen ari da ugazabekin eta kontserbadoreekin, eta badaki Brasil berria guztien proiektua dela. Badaki, halaber, bere arrakastaren gakoa negoziatzeko eta ituntzeko trebetasunean dagoela. Lula ohartzen da guztien ongizateari eta idealari lotutako abertzaletasun moduko horrek geldiaraz dezakeela, orobat, kapitalen etengabeko ihesa.

Luiz Inácio Lula da Silva itxaropen iturria da, ez bakarrik ezker zurrin eta etorkizunik gabekoarentzat, baita oro har politikarentzat ere, eta, halaber, ez bakarrik Ameriketako hemisferioarentzat, baita mundu osoarentzat ere. Milurtekoa estreinatu duen buruzagi multzo horretako kidea da Lula. Talde horretakoak sinetsita daude politika berria jadanik ezin dela egin aurkarien kontra, aurkariekin batera baizik, posible den bitartean. Agintari belaunaldi berri bat ordezkatzeko, eta hartako kideak ohartzeko dira *res publica* uste sendoei garaitzeko artea dela, batu eta ez zatitzeko, batasunean aurrera egitearren egoera jakin batzuetan are amore ematen ere jakitekoa.

Jarrera berri hori ezker-eskuinen eskema gaintzen ari da. Haren babesleak ohiko ardatzaren alde batean bezala bestean ere sortzen dira, baina komun, hain zuzen ere,

honako ezaugarri hau dute: kultura eta tradizio politikoak etorkizuneko erronka handien inguruan batzeko artea eta ahalegina.

Lulak, besteak beste Vicente Foxek bezala, argi ulertu du ustelkeriak ez duela ez eskuinik ez ezkerrik, estatuaren diru-kutxak hornituago egoteak bakarrik erantzun diezakeela nazio baten funtsezko beharrei, zerga erreforma sakon eta eraginkorrak baino ezin duela hobetu aberastasunaren banaketa... Badakite, halaber, beharrezkoa dela nazioarteko erakundeak sendotzea, munduko gobernuaren hazia izan daitezen, polarizazioa, aldebakartasuna eta zibilizazioen arteko haustura galarazteko bide bakarra den aldetik.

Horrek zerikusi gutxi dauka langile-presidenteari jadanik estigmatizatzen ahalegintzeko egotzi dioten populismoarekin. Izan ere, populismoa masen ezjakintasunaz eta desinformazioaz baliatzen da, eta inola ere ez du ezer egiten haiek sustatzeko, eta gurtzadetar bideratzen ditu nahastu eta atzerarazteko, baina ez askatzeko. Populismoa borrokan sendotzen da, baina aurrerapenezko politika ororen benetako helburua hura gaintzea da. Horra hor Chavezen eta Lularen arteko desberdintasuna: lehendabizikoak herria bitan zatitzen du; bigarrena, ordea, herria batzen ahalegintzen da, egungo gizarte desberdintasun handiak gorabehera. Hasiera batean, presidente biak dira ezkerrekoak, baina gai askok bereizten ditu.

Amazonastik iparraldera, Venezuelan, bertako mandatariak hitzezko arma guztiak erabiltzen ditu oposizioako kideen aurka; hegoaldean, Brasilgo hurrengo presidentea haiek nola edo hala bereganatzen ahalegintzen da. Buruzagi bolivarianoak klaseen arteko zatiketa sustatzen du; etorkizunean Brasilen kargu bera beteko duenak, ordea, botere ekonomikoekin eta gainerako alderdi politikoekin ituntzeko estrategia aztertzen du. Chavezek argi erakusten digu nola desegitura daitekeen ezkerretik ere herri bat, ondorioz gobernaezina izateraino.

Hirugarren milurtekoaren hasiera honetan, ezkerreko pedigría izateak, edo ohiko doktrina iraultzaileak betetzeak, ez dute guztiz ziurtatzen aurrerapenezko politika egingo denik; aitzitik, horretarako ezinbestekoa da ahalmena izatea herri bateko sek-

tore guztiak bide beretik joan daitezen lortzeko, giza garapena lortzearen, hala nola garapen etiko eta ekologiko jasagarria. Hortaz, gogoeta egin behar da, eta ikusi beharrezkoa dela bestelako mapak erabiltzen hastea, bestelako ikuspegiak, mota guztietako jokaleku politikoetan benetan erreakzio eta immobilismo poloak bezala berrikuntza eta aurrerapenezkoak ere aurkitzen ditugulako. Polo horiek, hain zuzen ere, politika sektarioak gaintzea lortu duten gizarte mugimenduek, taldeek eta alderdiek osatzen dituzte.

Etorkizuneko iraultzak epaitzeko orduan, kontuan hartuko da komunitate bat integratu —nazio bat kasu honetan— eta aurrerapenezko proiektu motibaga-

rri baten alde batuta lanean jartzeko izan duten gaitasuna. Horixe egin dute Lulak eta Langileen Alderdia buru duen koalizio handiak. Merkataritza ganberetara, burtsetara, enpresaburu elkargoetara... joan dira, eta esan diete haiekin batera lan egin nahi dutela, dirua ez dezatela kanpora atera, jarrai dezatela inbertitzen, beharrezkoak direlako.

Langileen Alderdiarentzat ez da alferrikakoa izango azken urteetan hiri handietako gobernuan lortu duen esperientzia. Lulak badaki erronka ikaragarri handi batzuei aurre egin beharko diela, ezingo dutela aldatu herria lau egunetan; are gehiago, sindikatu ahaltsu eta eraman gutxikoek beren kontra grebak ere antola ditzaketela... Baina hurrengo presidentea iraupen handiko lasterkaria da, eta herritarrei bere baikortasuna, pazientzia eta iraunkortasuna kutsatzea lortuko du. Ez alferrik, «urte askotan pilotutako itxaropena» merezimendu osoz jasotako du, eta gizarte elkartasuna eta justizia lortzeko ametsa katalizatu, hala nola Brasil denentzako eraikitze irrika jatorra. «Itxaropenak beldurra gaintu zuen», zioen Lulak, emaitzak jakin ondoren. Eta ezin geldituzko eran barreiatzen ari da Brasilgo geografia zabaletik, eta ez da erraz kizilduko etorkizunean ezinbestean izango diren oztopen aurrean. Arretaz jarraituko dugu Lularen giza- eta politika-abentura, mundu guztiz desberdina sortzearen inguruan halako ilusio eta aldeotasun handia eragiteko gauza izan den langile presidenteara.

Erredakzioan itzulia

## Hitzaren garrantzia

(Aurreko orrialdetik dator)

nola areagotzen diren haizeak Ebroz haraindian, baldin eta beren asmoei eta etorkizunari buruzko adierazpenetan eraikuntza hitza gabe berreraikuntza erabiltzen badute herri honi buruz ari di-

renean; izan ere, herriak aukera guztiak azter zitzaten eman zien botoa, aukera semantikoak barne.

Batzuetan astakirtenak gara, eta beharrezkoa da damu eta apaltasun aitormena egitea. Hainbatetan, halaber, espainolek lana eginda ematen digute, eta, gaine-

ra, adibidez, bidea erakusten digute. Eta hala, **reconstruir** (berreraiki) hitzaren bigarren sarreran, zein bukaerarako gorde baitut, bidea argitu ez ezik finkatu eta garbitu ere egiten dute, hala nola distira eman: «2.- Batu, pilatu, gogora ekarri oroitzenak edo ideiak, gertakari baten ezagutza edo gauza baten kontzeptua osatzeko». Akademia, «gertakari baten ezagutza» horrekin, gure memoria historikoan Nafarroa Euskal Estatu gisa dago-

elako begi-bistako gertakariak ari ote da? Behar-beharrezkoa izango ote da oroitzenak batu, pilatu, gogora ekartzea berreraikuntza nazional zuzena lortzeko? Tranpa den definizio bat ote?

Beraiek ere halakotzat hartzen badute, behingoz, eta aurrerantzean jarraibide izateko asmorik gabe, ez genieke kasurik egin behar?

Erredakzioan itzulia